

A photograph showing the backs of three children with their hands raised towards a bright, sunlit sky with green foliage in the background. The child on the left is wearing an orange shirt, the middle child a blue shirt, and the right child a red shirt.

FITXA DIDAKTIKOA

Lehen eta bigarren hezkuntzetarako edukia



MEDICOS SIN FRONTERAS
MUGARIK GABEKO MEDIKUAK

1. SARRERA ETA MARKO PEDAGOGIKOA

1.1 MUGARIK GABEKO MEDIKUEN AURKEZPENA

Mugarik Gabeko Medikuek **arreta medikoa eta humanitarioa** ematea xede duen erakunde bat da, eta, izan ere, gatazka armatuak, indarkeria, epidemiak, gaixotasun ahaztuak eta hondamendi naturalak jasaten dituzten pertsonen laguntzen diegu.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Gure erakundeari, eginkizunari eta jardunbideari buruz gehiago jakin nahi baduzue, ikasgelan bideo hau ikus dezakezue:



ZER DIRA MUGARIK GABEKO MEDIKUAK?

<https://www.youtube.com/watch?v=Pklm0qiwA3s>

Mugarik Gabeko Medikuek **erakunde independentea da**: krisi-egoeran dauden herrietako beharrak aztertzen ditugu eta guk erabakitzen dugu zer-nolako arreta eman, interes politiko, ekonomiko edo erlijiosoen pean egon gabe.

Gure funtsen % 90 baino gehiago jatorri pribatukoak dira eta gainerakoa erakunde publikoetatik dator (gobernuen laguntza humanitarioa agentziak, kasu).

Irabazi-asmorik gabeko erakundea gara eta, beraz, jasotzen ditugun funts gehienek helburu soziala dute (ekintza medikoa eta testigantza).

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Gure zereginari buruzko xehetasun gehiago izan eta nola lagun diezagukezen jakin nahi baduzue, ikasgelan bideo hau ikus dezakezue:



GURE PRINTZIPIOAK:

<https://youtu.be/dwCLZCbT5Qg>

1.2 'MUGARIK GABEKO SORTZAILEAK' EKIMENAREN AZALPENA

Mugarik Gabeko Medikuek **herritarren laguntza behar dute, zuek bezalako pertsonena, hain zuzen** herrialde desberdinetan ekimenak gauzatzeko.

Jakinaren gainean gaude ikasgelan **hiritartasunerako gaitasuna** lantzen ari zaretela, eta, horregatik, ekimen bat proposatu nahi dizuegu: **'Mugarik Gabeko Sortzaileak'**. Horren bidez, ikasleek ekimen pertsonala landuko dute eta lantaldean aritzeko ohiturak garatuko dituzte enpatia sustatu eta osasun-arreta unibertsala bermatzearen garrantzia azpimarratzen dituen proiektu solidario batean.

Ildo horretan, **'Mugarik Gabeko Sortzaileak'** eskola-kanpainaren xedea **ekimen solidario bat egitea da, online**, ikasleen ingurunea gaiari buruz sentsibilizatzeko. Fitxa didaktiko honetan dituzue proiektua sortzeko jarraibideak.

1^a fasea SENTSIBILIZAZIOA	1 (Ezagutu Mugarik Gabeko Medikuek) eta 2 (Ekintzara pasatuko gara!) <u>bideoak ikustea.</u>	Mugarik Gabeko Medikuen zereginari buruzko xehetasunak ezagutzeko galderen gidoia. Talde-hausnarketa eta mahai-ingurua.
2^a fasea MUGARIK GABEKO MEDIKUEN ZEREGINA XEHETASUNEZ EZAGUTZEA	Mugarik Gabeko Medikuen jarduera-eremuak ezagutzea. Ikus-entzunezko baliabideak. Dinamika parte-hartzailea.	Elkartasuna eta enpatia lantzeko talde-dinamika.
3^a fasea EKIMEN SOLIDARIOA GAUZATZEA	Ekimena aukeratzea. Webeko sortze-prozesua urratsez urrats.	Ekimena aurrera eramateko eta rolak banatzeko orientabideak.

1.3 HELBURU OROKORRAK ETA DIDAKTIKOAK

HELBURU OROKORRAK

- Ikasleek enpatia eta hiritartasunerako gaitasuna sustatzen dituzten proiektu solidarioetan parte hartu eta elkarlanean jardun dezaten sustatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea osasuna eta osasun-arreta bermatzearen garrantziaz, bizi-kalitate on bat izateko.
- Herritarrak sentsibilizatzea Mugarik Gabeko Medikuen jarduera-eremu batzuen gainean (errefuxiatuei eta desplazatuei laguntzea, krisi sanitarioetan arreta ematea, haurrak txertatzea, larrialdietan erantzutea, etab.) eta erakustea zeinen garrantzitsua den lankidetzak, egoera horiek lehengoratzeko.
- Ikasleek ikaskuntza kooperatiboaren bitartez aldaketaren eragile gisa bete dezaketen rol aktiboari buruz hausnartzea.
- Mugarik Gabeko Medikuen zeregina eta osasun-arreta unibertsala azaltzea eta ikasleen ekimen solidarioan partaidetza sustatzea.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Herritarren jardunerako prest egotea.
- Banaka eta taldean lan egiteko ohiturak eta norbere buruarenganako konfiantza, zentzumen kritikoa eta ekimen pertsonala garatzea.
- Kultura eta pertsonen arteko desberdintasunak eta eskubide- eta aukera-berdintasuna ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea.
- Gaitasun afektiboak garatzea nortasun-eremu guztietan eta besteeikiko harremanetan.

1.3 FUNTSEZKO GAITASUNAK ETA CURRICULUM-LOTURA

HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

- Gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu; eta iritzi propioak garatzen ditu eztabaidari elkarrizketaren, argudioaren, errespetuaren eta edozein diskriminazio edo indarkeria motaren aurkako jarreraz aurre egiteko.
- Tokiko jardueren eta jardun globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak ulertzen ditu; eta, modu kontzientean eta arrazoituan, bizimodu jasangarria eta ekosozialki arduratsua hartzen du.

EKINTZAILETZARAKO GAITASUNA

- Beharrak aztertzen ditu eta zentzu kritikoaz egiten die aurre erronkei, eta haien iraunkortasunaren balantzea egiten du, esparru pertsonalean eta sozialean balioa sortzera bideratutako ideia eta irtenbide berritzaile, etiko eta iraunkorrak aurkezteko.
- Ideia eta irtenbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak modu arrazoituan hartzen ditu, plangintza- eta kudeaketa-estrategia arinak erabiliz, eta esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

- Esparru pertsonaleko eta sozialeko ahozko, idatzizko edo zeinuzko testuak nahiz testu multimodalak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoaz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.
- Hainbat iturritatik datorren informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta informazio hori integratu eta ezagutza bihurtzen du.
- Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazken konponbide elkarrizketatuaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu.

GAITASUN DIGITALA

- Interneten bilaketak egiten ditu, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta; eta, horretarako, emaitzak modu kritikoan hautatzen ditu eta artxibatu egiten ditu, horiek berreskuratzeke, horien aipamena egiteko eta berrerabiltzeko, jabetza intelektuala errespetatuz.
- Tresna edo plataforma birtualen bidez edukiak, datuak eta informazioa partekatuz komunikatu, parte hartu, lagundu eta elkarerraginean aritzen da; herritartasun digital aktiboa, zibikoa eta gogoetatsua gauzatzeko.
- Bere ikasteko ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du ezagutza eraikitzeko, informazioa tratatzeko estrategiak eta hainbat tresna digital baliatuz; eta, horretarako, zereginaren eta etengabeko ikaskuntzako beharren arabera egokiena hautatu eta konfiguratzeko du.

CURRICULUM-LOTURA LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPAN

NATURA-, GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEAREN EZAGUTZA

3. zikloa

OINARRIZKO JAKINTZAK

B. Teknologia eta digitalizazioa	1. Ikaskuntzako ingurune pertsonala digitalizatzea.	Interneten informazioa segurtasunez eta eraginkortasunez bilatzeko estrategiak.
C. Gizarteak eta lurraldeak	1. Egungo munduaren erronkak.	Klima eta planeta. Dinamika atmosferikorako eta munduko eremu klimatiko handietarako sarrera.
		Migrazioak eta kultura-aniztasuna. Aldagai demografiko nagusiak eta horien irudikapen grafikoa. Herritarren portaerak eta horien bilakaera. Migrazio-mugimenduak.
		Herritartasun aktiboa. Gizartearen eta herritarren parte-hartzea.
	3. Alfabetatze zibikoa.	Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura. Pentsamendu kritikoa, interes-gatazkak aztertzeo tresna gisa. Indarkeriaren biktimak aitortzea.
	4. Kontzientzia ekosoziala.	Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak.
		Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta natura-ingurunearen arteko ekomendekotasuna, interdependentzia eta interrelazioa.
		Garapen jasangarria. Giza jarduera espazioan eta baliabideen ustiapenean. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-desberdintasuna munduan. Garapen Jasangarrirako Helburuak.

BALIO ZIBIKOETAN ETA ETIKOETAN HEZTEA

3. zikloa

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Autoezagutza eta autonomia morala.	Pentsamendu kritikoa eta etikoa.
	Etika gure ekintzen gidari gisa. Baliotsua denari eta balioei buruzko eztabaida. Arauek, bertuteak eta sentimendu moralak.
B. Gizartea, justizia eta demokrazia.	Printzipio eta balio konstituzionalak eta demokratikoak. Justiziaren arazoa.
	Giza eskubideak eta haurren eskubideak, eta horien garrantzi etikoa.
	Desberdintasun ekonomikoa. Pobrezia eta lan- eta haur-esplotazioa: horien kausen azterketa eta irtenbide lokalak eta globalak bilatzea.
	Gutxiengoekiko eta identitate etnokulturalekiko errespetua. Kulturartekotasuna eta migrazioak.
	Bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura. Defentsa bakearen zerbitzura dagoen konpromiso zibiko eta solidario gisa baloratzea. Babes zibila eta herritarren lankidetzaren hondamendien aurrean. GKEen eta GGKEen zeregina. Gatazkak modu baketsuan konpontzea.
C. Garapen jasangarria eta ingurumen-etika.	Giza ekintza naturan. Ekosistemak eta gizarteak: interdependentzia, ekodependentzia eta interrelazioa.
	Planetaren mugak eta klima-aldaketa.
	Planeta babesteko eta zaintzeko betebeharrak etikoa eta legezko betebeharrak.

CURRICULUM-LOTURA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) ETAPAN

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

1. mailatik 3.era

OINARRIZKO JAKINTZAK

E. Ekologia eta jasangarritasuna.	Klima-aldaketaren kausak eta ekosistemetan dituen ondorioak.
	Ingurumenaren, gizakiaren eta beste izaki bizidun batzuen osasunaren arteko harremana: <i>one health</i> (osasun bakarra).
H. Osasuna eta gaixotasuna.	Txertaketak gaixotasunen prebentzioan eta giza bizitzaren kalitatea hobetzean duen garrantzia.

BALIO ZIBIKOETAN ETA ETIKOETAN HEZTEA

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Autoezagutza eta autonomia morala	Ikerketa etikoa eta arazo konplexuen konponbidea.
	Etika gure ekintzen gidari gisa. Baliotsua denaren eta balioen inguruko hausnarketa: unibertsaltasuna eta aniztasun morala.
B. Gizartea, justizia eta demokrazia	Gerra, terrorismoa eta indarkeria politikoko beste modu batzuk.
	Asoziazionismoa eta boluntarioritza. Herritarrak eta parte-hartze demokratikoa. Kode deontologikoak. Etika aplikatuak.
	Desberdintasun ekonomikoa eta pobreziaren aurkako borroka. Globalizazio ekonomikoa eta ondasun publiko globalak. Bidezko merkataritza. Lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta justiziarako eskubidea.
	Bakearen aldeko banakako eta taldeko ekintzak. Indarkeriaren biktimentzako arreta. Nazioarteko zuzenbidea eta herritartasun globala. GKEen eta GGKEen zeregina.

C. Jasangarritasuna eta ingurumen-etika	Gure bizimoduen eta ingurunearen arteko interdependentzia, interkonexioa eta ekoherentzia. Tokikoa eta globala. Gizakiak naturarekin duen harremanari buruzko mundu-ikuskerak kritikoki aintzat hartzea.
	Planetaren mugak eta baliabideen agortzea. Giza ekintzen aztarna ekologikoa. Larrialdi klimatikoa.
	Hainbat planteamendu etiko, zientifiko eta politiko arazo ekosozialen inguruan. Ingurumen-etika. Garapen Jasangarrirako Helburuak.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA

1. eta 2. maila

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Egungo munduaren erronkak	Larrialdi klimatikoa: klima eta giza jardueren inpaktua baldintzatzen duten elementuak eta faktoreak. Arrisku eta hondamendi klimatikoak orain, iraganean eta etorkizunean. Hondamendi naturalen eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean herritarren kalteberatasuna, prebentzioa eta erresilientzia.
B. Gizarteak eta lurraldeak	Baliabideek eta lurraldeak eragindako lehia eta gatazka. Nazioarteko tentsioak, eta zibilizazioen arteko talkak eta aliantzak.
	Garapen Jasangarrirako Helburuak. Gaur egungo munduaren dilema ikuspegia, pentsamendu kritikorako eta iritzi propioak garatzeko abiapuntua.
	Indarkeria eta gatazka armatuak. Zibilak gerretan.
	Zientzia, medikuntza eta aurrerapen teknologikoak. Epidemien eta pandemien aurkako borroka.

C. Konpromiso zibikoa	Giza duintasuna eta eskubide unibertsalak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.
	Interesa tokiko ingurunean eta ingurune globalean dauden egungo erronka eta arazoen aurrean.
	Bizikidetzaz zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibila prozesu demokratikoetan sartzea eta inplikatzeko. Proiektu komunitarioetan parte hartzea.
	Elkartasuna, enpatia eta laguntza-ekintzak pobrezia-, kalteberatasun- eta gizarte-bazterkeriako egoeretan dauden kolektiboentzat.

2. LEHEN FASEA: SENTSIBILIZAZIOA

2.1 (MUGA GABEKO MEDIKUAK EZAGUTU) ETA 2 (EKINTZARA PASATUKO GARA!)

BIDEOEN LABURPENA

1. BIDEOA: MUGA GABEKO MEDIKUAK EZAGUTU		
Ikasgelarako materiala	Iraupena	Laburpena
Mahaiko ordenagailua edo eramangarria, internetekin. Ikasgelarako proiektagailua, pantaila eta bozgorailuak.	1 minutu gutxi gorabehera. https://www.youtube.com/watch?v=GbCJlejQBg0	Ikasleentzako bideoa. Animazioak eta infografiak erabiliz, Mugarik Gabeko Medikuen zeregina erraz ulertzeko moduan azalduta dago.

2. BIDEOA: Ekintzara pasatuko gara!		
Ikasgelarako materiala	Iraupena	Laburpena
Mahaiko ordenagailua edo eramangarria, internetekin. Ikasgelarako proiektagailua, pantaila eta bozgorailuak.	2 minutu gutxi gorabehera. https://www.youtube.com/watch?v=dmXnniYptug	Ikasleentzako bideoa. Erakundeko kide batek ikasgelan ekimena gauzatzeko jarraibideak ematen dizkie, haien arreta bereganatzeko kartelak eta trantsizio-efektuak erabiliz (TikTok eran).

2.2 GOMENDIO ETA ORIENTAZIO PEDAGOGIKOAK

1 bideoa: Ezagutu Mugarik Gabeko Medikuak

Debatea bultzatu, ikasgelan ikusitako bideoaren gainean hausnartzeko. Galdera hauekin bidera dezakezu:

- Zer iruditu zaizue bideoa?

Ikasleei erantzuten utzi. Norbaitek Mugarik Gabeko Medikuak ezagutzen baditu edo haren senideren batek erakundearekin kolaboratu edo dirua eman badu noizbait, utzi esperientzia kontatzen.

- Ezagutzen al zenituzten Mugarik Gabeko Medikuak?

Mugarik Gabeko Medikuak ezagutzen ez dituztenei, berriz, iritzia emateko eskatu (zer iruditu zaizue? Ondo al dago? Lan ona egiten al dute?...). Ikusi dugunez, haien premia duten tokira joaten diren medikuak dira.

- Zergatik da hain garrantzitsua haien zeregina?
- Zergatik uste duzue beste herrialdeetara joaten direla?

Errenta txikiko edo larrialdiak, gatazkak, lekualdaketak, krisi sanitarioak etab. jasan ditzaketen herrialdeetan ez bezala, hemen arreta medikoa daukagu. Gaixo gaudenean, medikuari deitu edo osasun-zentrora joan gaitezke. Gainera, farmazietan sendatzen lagunduko diguten sendagaiak lor ditzakegu.

Hainbat herrialdetan, ordea, ez daukate zerbitzu medikorik, ezta farmaziarik ere. Beraz...

- Zer gertatzen da herritarrek ospitaleak, txertoak eta sendagaiak eskura ez badituzte?
- Zer gertatuko litzateke Mugarik Gabeko Medikuek esku hartuko ez balute?

Ikasleek iritzia eman dezatela, eta, gero, idatzi arbelean Mugarik Gabeko Medikuek egiten dutena nabarmentzeko esaldi edo hitz gakoak ("lagundu", "larrialdietara jo", "osasuna hobetu", "sendatu", etab). Mahai-ingurua amaitzerakoan, ikasleek begi-kolpe batez ezagutuko dituzte Mugarik Gabeko Medikuen jarduera nagusiak: haien premia duten pertsonen laguntza, eta, horregatik, larrialdi- edo gatazka-eremuetara joaten dira, bertako biztanleen osasuna bermatzeko.

2 bideoa: Ekintzara pasatuko gara!

Debatea bultzatu, ikasgelan ikusitako bideoaren gainean hausnartzeko. Galdera hauekin bidera dezakezu:

Begira, izen berezi bat eman digute: MUGARIK GABEKO SORTZAILEAK izango gara!

- Zer sortuko dugu?
- Ideia batzuk ekimena sortzen lagun diezagukete. Zeintzuk?

Bideoan, laguntza eske ikusi berri ditugu.

- Arazoren batek (gatazkak, desnutrizioa, txertaketarik eza, larrialdiak) atentzioa eman al dizue?
- Ekimenen artean (urtebetetzeak, kultur edo kirol-ekitaldia, ideia askea) ba al duzue lehentasunik?

Ikasleek iritzia eman dezatela, eta, gero, idatzi arbelean proposatutako ideien eta ekimenen balioa azpimarratzeko esaldi edo hitz gakoak. Era horretan, ikasleek beren jabetasun-prozesua hasiko dute erabakiak hartu eta aukeratutako ekimenean aktiboki parte hartzean.

Ondoren, ikasgela-taldeak zer jarduera-eremutan jardun eta ekimen solidario gauzatuko duen erabakiko dute.

3. BIGARREN FASEA: MUGARIK GABEKO MEDIKUEN ZEREGINA XEHETASUNEZ EZAGUTZEA

3.1 MUGARIK GABEKO MEDIKUEN JARDUERA-EREMUAK

Milioika pertsona larrialdi-egoeran daude; haien egunerokoan gatazka armatua, indarkeria eta lekualdaketa, gaixotasun endemikoak eta epidemikoak, hondamendi naturalak eta osasun-arretarik eza jasaten dituzte. Eremu horietan jarduten dugu normalean, herritarrek apenas jasotzen dutelako osasun-arreta eta ez daukatelako haien beharrezko erantzuteko modurik.

1-Gatazken biktimak

Gerra bat giza taldeen arteko gatazkaren adierazpenik bortitzena da, non talde armatuek borrokan diharduten helburu zehatz batekin.

XX. mendearen hasieratik, herritarrek gerraren ondorio gero eta lazarriagoak jasan dituzte; askotan, bonbardaketen, erasoen eta gehiegikerien jomuga dira eta, edonola ere, ez daukate osasun-arretarik eta hainbatetan baldintzarik okerrenetan ihes egin behar izaten dute.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Bideo hau jar dezakezu ikasgelan. Dena dela, komenigarria izango litzateke zuk ikustea lehenago, ikasleen heldutasun-mailarako egokia den baloratzeko.



GUERRAS Y VIOLENCIA:

Sartu estekadura honetan eta jarri azalpen-bideoa.

<https://www.msf.es/nuestra-accion/guerras-violencia>

2-Desnutrizioa

Urtero, 5 urtetik beherako 2,5 milioi haur hiltzen dira desnutrizioz edo harekin lotutako ondorioengatik. Munduko 20 herrialdetan kontzentratzen da muturreko desnutrizioaren portzentajerik handiena (% 80).

Lehen haurtzaroan nutrizio egokia bermatzeko ezinbestekoak dira elikagaiak. Alabaina, baliabide gutxiko herrialdeetan familia askok ez dauka janaria erosteko dirurik, eta krisialdietan eskuraezinak dira gainera. Pertsona batek bere beharrezkoak asetzeko mantenugaiak hartzen ez baditu, gorputza ahultzen hasten da: gantza galtzen du lehenik, eta muskuluak gero.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Sartu estekadura hauetan.

DESNUTRIZIOA:

<https://www.msf.es/nuestra-accion/desnutricion>

<https://www.msf.es/nuestra-accion/salud-pediatrica>

3-Haurren txertaketa

Askok ez dute arreta medikorik jasotzen, hainbat arrazoiengatik: jatorria, baliabiderik eza, diskriminazioa edota isolatuta bizitzea. Osasun-sistematik kanpo daude erabat eta gaixotzean ezin dute medikuarengana jo, eta horrek haien osasun fisikoan eta mentalean ondorio larriak ditu.

Prebentzioko arreta pediatrikoaren barruan, jarduerarik eraginkorrenetako bat txertaketa da, ezgaitasuna edo heriotza eragin dezaketen gaixotasun larriak prebenitzen dituelako

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Sartu estekadura honetan eta jarri azalpen-bideoa.



HAURREN TXERTAKETA:

<https://www.msf.es/nuestra-accion/vacunacion>


<https://www.youtube.com/watch?v=TxFiyRhRKAU&t=1270s>

4-Hondamendi naturalak

Lurrikarak, urakanak, tsunamiak, uholdeak eta ur-irristatzeak bezalako fenomeno naturalak herrietatik hurbil gertatzen direnean, heriotzak eta kalte material izugarriak jasaten dira.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Sartu estekadura honetan eta jarri azalpen-bideoa.



**CUÁNDO INTERVENIMOS:
DESASTRES NATURALES**

HONDAMENDI NATURALAK:

<https://www.msf.es/nuestra-accion/desastres-naturales>

3.2 IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDE OSAGARRIAK

LEHEN HEZKUNTZARAKO GOMENDATUTAKO BIDEOAK

- Gizateria 50 urtez:
<https://www.youtube.com/watch?v=23ngVBwaG2U>
- Mediku bihurtu nahi zuen haurra:
<https://www.youtube.com/watch?v=MVrEOiTBXgc>
- Borrokan jarraituko dugu:
<https://www.youtube.com/watch?v=X1Fs74EbUP4>
- Zer da planetaren osasuna?:
<https://www.youtube.com/watch?v=2uVG4o7Q-CQ>


BIGARREN HEZKUNTZARAKO GOMENDATUTAKO BIDEOAK

- Memoria 2021: egintza medikoaren boterea.
<https://www.youtube.com/watch?v=CjMRXjDa4bs>
- Ekintzara bideratutako hitzak:
<https://www.youtube.com/watch?v=8uBSxhQNBbU>
- Kasu horretan zer egingo zenuke zuk?:
<https://www.youtube.com/watch?v=MVrEOiTBXgc>
- Mugarik Gabeko Medikuekin lan egitea lehenbizikoz: itxaropena vs. errealitatea:
<https://www.youtube.com/watch?v=JSkUPUMIQ50>
- Zer dira patente medikoak?
<https://www.youtube.com/watch?v=y6nafWDYNHQ>

3.3 ELKARTASUNA ETA ENPATIA LANTZEKO TALDE-DINAMIKA

LEHEN HEZKUNTZA

- Lantaldeak osatu.
- Lau binetak fotokopiatu eta moztu, lantaldeen artean banatzeko.
- Lantalde bakoitzak bineta bat aukeratuko du, eta harekin komiki bat egin.
- Lantalde bakoitzak bere istorioa asmatu beharko du. Horretarako, binetetan Mugarik Gabeko Medikuek iritsi aurreko eta ondoko egoerak marraztu beharko ditu (beharrizan-mota, hondamendia edo gatazka, etab.), aukeratutako bineta istorioaren erdian kokatu eta arazoari irtenbidea ematen dioten beste batzuk irudikatuz (gatazkaren amaiera, txertoak, esparruetan arreta, etab.).
- Talde bakoitzak azalduko du bere istorioaren barruan Mugarik Gabeko Medikuek zer konponbide ematen dioten arazoari.
- Mahai-ingurua egin eta ikasleen ondorioak jaso.
- Garrantzitsuenak arbelean idatzi eta pentsatu zer ekimen solidario eramango duzuen aurrera.



Gatazken biktimak



Txertaketa



Hondamendi Naturalak



Desnutrizioa

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

- Alderantzizko Klasea (Flipped Classroom) eredu pedagogikoan oinarritutako dinamika bat egitea proposatu da eta Mugarik Gabeko Medikuen jarduera-eremu bakoitzeko albiste eta testigantzetara estekadurak ahalbidetu dira.
- Lantaldeak osatu.
- Lantaldeei jarduera-eremu bana eman edo eurek aukeratzeko eskatu (errepika daiteke).
- Haietako bakoitzak bere jarduera-eremuari lotutako albisteak bilatu beharko ditu (hiru eta bost artean) eta Mugarik Gabeko Medikuen testigantza bat edo bi aukeratu.
- Lantalde bakoitzak bere bilaketaren emaitzak eta Mugarik Gabeko Medikuek jarduera-eremu horretan egindako lana azalduko ditu.
- Ondoren, mahai-ingurua egin eta ondorioak atera.
- Garrantzitsuenak arbelean idatzi eta pentsatu zer ekimen solidario eramango duzuen aurrera.

Alderantzizko Klasea (*Flipped Classroom*) eredu pedagogikoari lotutako estekadurak:

Alderantzizko Klasea (*Flipped Classroom*) eredu pedagogikoak ikasleei baliabide osagarriak ahalbidetzen dizkie unean uneko edo etorkizunean ikasgelan landuko dituzten gaiei buruz. Era horretan, etxetik egin dezakete bilaketa, eta, gero, emaitzak ikasgelan partekatu.

Hau da, ikasleek kanpo-azterketa edo -ikerketa egin eta etxean edukiak ikusi ondoren ikasgelan elkarreragin eta irakasleak bideratutako jardueretan (ideia-azterketa, mahai-inguruak, lantaldeak, etab.) parte hartuko dute.

- Mugarik Gabeko Medikuen osasun-, logistika-, koordinazio- eta beste arlo batzuetako langileen **testigantzak**. Lantalde bakoitzak bat edo bi aukeratuko ditu.

<https://www.msf.es/actualidad/desde-el-terreno>

- **Gaurkotasun-albisteak**. Lantalde bakoitzak jarduera-eremu bat aukeratuko du "Gaia" laukian sakatuz. Hiru eta bost albisteen artean aukeratu behar ditu.

<https://www.msf.es/actualidad/noticias>

4. HIRUGARREN FASEA: EKIMENA GAUZATZEA

4.1 MUGARIK GABEKO SORTZAILEAK

NOLA SORTU EKIMEN SOLIDARIOA? bideoa jarri.

<https://www.youtube.com/watch?v=mEU3QGTsD3E&t=2s>



1. Mugarik Gabeko Medikuek proposatutako **jarduera-eremuan** erabaki zein **proiektutara** bideratuko dituzuen lortutako funtsak.

GATAZKEN BIKTIMAK	DESNUTRIZIOA	HAURREN TXERTAKETA	HONDAMENDI NATURALAK
-------------------	--------------	--------------------	----------------------

2. **Ekimen-mota** aukeratu.

URTEBETETZEA	EKITALDI SOLIDARIOA	KIROL-EKITALDIA	IDEIA ASKEA
--------------	---------------------	-----------------	-------------

Bideo honetan hainbat ekimen ikus ditzakezue: **DESNUTRIZIOA:**

<https://iniciativassolidarias.msf.es/fundraisers?q=colegio>

URTEBETETZEA EDO URTEMUGA

Adibidez, ikasleren batek **urteak betetzen baditu** edo lagunekin edo familiarekin ospakizun bereziren bat badu, oparien ordeztasun bat egitea iradoki diezaiekezu, gehien behar dutenei laguntzeko.

Ikastetxeko egun garrantzitsu bat ere proposa izan daiteke horretarako (Bakearen Eguna, adibidez), baita ikastetxean antolatutako aste kulturala eta jardunaldiak ere.

EKITALDI SOLIDARIOA

Ikastetxean **antzerki-, dantza-, edo musika-taldea** badago, funtzio solidario bat antola dezakezue eta sarreraren salmentarekin lortutako dirua dohaintzan eman.

KIROL-EKITALDIA

Ikastetxean **futbol-, saskibalo- edo beste kirol-talderen bat badago**, kirol-erronka berria edo **ongintzako partidua** antola dezakezue, parte-hartzaileak eta ikusleak Mugarik Gabeko Medikuei diruz laguntzeko.

IDEIA ASKEA

Gogoratu, **Mugarik Gabeko Sortzaileak** zarete. Ekimen solidarioa egiteko ideia original orok harrera ona izango du.

4.2 ROLAK BANATZEA ETA EKIMENA GAUZATZEKO JARRAIBIDEAK

Ekimen solidario bat online abiarazteak xede bikoitza du: batetik, ikasleen **espiritu kritikoa sustatzea**, eurek gauzatutako ekimenean **konpromisoaren eta jabetzaren** bitartez protagonista izatea ahalbidetuz, eta, bestetik, haien **talentua eta sormena** elkartasunaren zerbitzura jartzea.

Ikasleek **ikasgelatik kanpo** ekimenaren berri ematean, **erantzukizunak beren gain hartu** eta **gaitasun soziala eta hiritartasunerako** gaitasuna garatzen dituzte, baita norbere buruarekiko konfiantza eta **sen kritikoa** ere, **eta, aldi berean, gizartearen dituzten inplikazioak eta partaidetza ohartzen dira.**

Ekimenaren erdigunean ikasleak jartzen baditugu, **aldaketaren eragile** gisa duten egitekoak ohartuko dira!

1. Ekimen-mota eta edukiak zehaztuta, **helburua** eta zer alderdi azpimarratu erabakiko dute, **partaidetza handia** lortzeko.

Lantaldeetan galdera hauek planteatuko dira.

- Zer helburu (ekonomiko eta solidario) lortu nahi ditugu?
- Nola lortuko dugu gure ezagun guztiek parte hartzea? (Azalpena eta hedapena).

Hobe da **helburu ekonomiko** txiki batekin hastea: aurreikusi zenbat pertsonak egingo duten bat ekimenarekin, biderkatu eman dezaketen gutxieneko diru-kopuruarekin eta, gero, erdibitu. Horixe izango da lor daitekeen lehenbiziko helburu ekonomikoa, eta, gero, areagotu ahal izango da.

Helburu solidarioa deskribatzean garrantzitsua da istorioari gertutasuna ematea, jendea identifikatuta sentitzean egoerarekin sentsibilizatuko baita. Konpromiso hori barnerratu eta ekimenarekin enpatizatzeke argazkiak erabil ditzakezue.

2. Ekimen solidarioa, kirol-ekitaldia edo ideia librea bada ere, **ikasleen gaitasunei erreparatu, gehien egitea atsegin dutenarekin inplika daitezten:**

- Marrazkilari onek ekitaldiaren kartela egin dezakete edo ikastetxean eta inguruneetan banatzeko liburuxkak diseinatu.
- Adierazteko erraztasuna dutenek sare sozialetarako txioak eta postak idatzi edo hitzaldi txiki bat presta dezakete gainerako lantaldeak eta ikasgelak informatzeko.
- Matematiketan iaioak direnek alde ekonomikoaz arduratu eta webean bildutako diruaren bilakaera kontrola dezakete.

3. Zuen proposamena <https://iniciativassolidarias.msf.es/> helbidera igo, "EKIMENA SORTU" botoia sakatuta.

- **Plataforman** ekimen solidarioa zehaztuta, garrantzizko informazioarekin osatu:

Ikastetxearen izena / ikasgela parte-hartzailea.

Ekimenaren izena / aukeratutako sektorea.

Helburuak (ekonomikoak eta solidarioak).

Informazio orokorra.

4. Pertsonalizatu **diru-bilketako orria.** Azaldu xehetasunez zertan datzan zuen ekimena, eta zerk bultzatu zaituzten hori gauzatzera. Erantsi nahi dituzuen argazkiak eta bideoak.

5. Zabaltu ekimena ingurunean eta ikastetxeko sare sozialetan. Ikasleak beren inguruneko influencerrak bihurtuko dira: senideak eta lagunak animatuko dituzte webean sartu, dirua biltzen lagundu eta ekimenaren berri ematera.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Sartu estekadura honetan eta ikusi zuen ekimenari ikusgaitasun handiagoa emateko amarruak eta aholkuak.

<https://iniciativassolidarias.msf.es/how-it-works>

Eta gogoratu:

Online ekimen solidarioek zure ametssetako mundua eraikitzen laguntzen dute.

ETA ZUEN IDEIAK DIRA GURE BOTIKARIK ONENA!